Maitane Nerekanek hitza hartu du aurkako bozka justifikatu ahal izateko. Proposamena beste urtetan ere egin izan dela esan du, errepikakorra dela, eta ez dagoela ados erosketa gehien egin ditzaketen herritarrei doako aparkalekua ematearekin. Bestalde, adierazi du ez daudela ados Getxoko merkataritzaren arazo bakarra aparkalekuena izatearekin, eta herriko merkataritzan eragin zuzena dutela mugakide dituzten saltoki handiek.

comercio, les parezca oportunista. Manifiesta que le parecen bien las actuaciones del ayuntamiento en todo el año pero también hay campañas termporales que hay que realizar, ya que los estudios indican que el 86% de los vecinos de Getxo compran fuera en grandes superficies donde no hay problemas de aparcamiento. Estima que el problema del aparcamiento limita el desarrollo del comercio y la gratuidad que plantean es para aquellos que compran y sería una subvención a sufragar por el ayuntamiento únicamente o compartida con los comerciantes. Finaliza insistiendo en la necesidad de la utilización de las 90 plazas vacantes del parking del Getxo Antzokia.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 9 votos a favor, PP, 14 votos en contra PNV, Bildu y 2 abstenciones, PSE-EE.

Maitane Nerekan interviene para justificar el voto negativo en que la propuesta es reiterativa con respecto a las de otros años anteriores y que no está de acuerdo en que se les facilite aparcamiento gratuito a los vecinos con mayor poder adquisitivo de compra y en que no comparten que el aparcamiento es el único problema del comercio de Getxo e indica el daño de las grandes superficies existentes en municipios limítrofes sobre el comercio local.

## 175.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: UDALTZAINGOAREN UNIFORMEEN INGURUKOAK.

Jesus Toca jaunak ondorengo mozioa irakurri du:

## 175.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/PEGATINAS EN LOS UNIFORMES POLICIALES.

Jesús Toca da lectura a la siguiente moción:

Prentsa idatziaren bidez jakin dugu Getxoko Udaltzaingoaren uniformeetan "Nahi baduzu euskaraz" leloa duten eranskailuak jarri dituztela, herritarrei jakinarazteko beraiekin euskaraz hitz-egin dezaketela.

Hemos conocido por la prensa escrita de la colocación de unas pegatinas en los uniformes de la Policía Municipal de Getxo, con el lema "Nahi baduzu euskeraz" (en euskera, si lo deseas), para informar a la ciudadanía de que pueden dirigirse a ellos en euskera.

Eta udal honetako zinegotzia den Koldo Iturberen adierazpenak entzun ondoren esanaz, beren lana euskaraz egin ahal izateko agente batzuk eskatu dutelako, modurik onena aipatutako leloaz uniformeetan eranskailuak jartzea dela.

Y después de una declaraciones del concejal de este ayuntamiento Sr. Koldo Iturbe, afirmando que la mejor manera era colocar en los uniformes una pegatina con el lema citado, ya que lo han solicitado un grupo de agentes para desarrollar su trabajo en euskera.

Ekintza hori udalean euskara sustatzeko indarren dagoen planaren baitan dago eta bere helburua da, administrazioari dagokion atalean, zerbitzu eta lan hizkuntza gisa euskararen erabilera bermatzea. Horrela, herritarrek bi hizkuntza ofizialetan arreta jasotzeko duten eskubidea bermatzen du.

Esta acción se enmarca en el plan para la promoción del euskera vigente en el ayuntamiento y que en su apartado dedicado a la administración, tiene como objeto garantizar el uso del euskera como lengua de servicio y como lengua de trabajo, de cara a asegurar el derecho de la ciudadanía a ser atendida en los dos idiomas oficiales.

Udal talde honen ustez, herri honetako udaltzainen uniformean ez da inoiz lelorik jarri behar, herritarrek agintaritza-agente gisa identifikatzeko balio behar baitu eta beste kutsurik gabeko tresna bat izan behar baita eta ez du onartuta ez dagoen beste ezer izan behar, goi mailako agintari-galoiak izan daitezke adibidez, onartuta daude eta.

Este grupo municipal entiende que nunca se debe insertar ningún lema en el uniforme de la policía municipal de este municipio ya que debe ser un instrumento aséptico de identificación ante el ciudadano como agente de la autoridad, sin ninguna cosa que no esté reconocida, como galones de mando superior.

Ekimen honekin udaltzaingo taldea bitan banatzen ari gara; eranskailua daukatenak eta ez daukatenak eta honek diskriminazioa eragiten du polizia taldean.

Con esta iniciativa estamos dividiendo a la policía en dos grupos; los que llevan pegatina y los que no la llevan, logrando una discriminación en el cuerpo.

Gauza bat da udaltzain bakoitzak autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egitea lehen

Una cosa es que cada policía se exprese en la primera toma de contacto en cualquiera de las dos lenguas oficiales

hitza, baina hori adieraztea… ez mesedez!

Horregatik guztiagatik, Udaleko Talde Popularrak honako ERABAKI-PROPOSAMENA aurkezten du:

LEHENENGOA.- Getxoko Udaltzaingoaren uniformea ez dezatela erabili inolako adierazpenik egiteko, ezta agenteak ezagutzen dituen hizkuntzak adierazteko ere.

BIGARRENA.- Euskararen ezagutzari buruz uniformeetan txertatu dituzten eranskailuak kendu ditzatela.

HIRUGARRENA.- Udaleko komunikabideetan honako mozioaren berri eman dezatela.

Luis Almansa jaunak adierazi du mozioa babestuko dutela, izan ere, uniformean pegatinak jartzea ez da sartzen ez Udaltzaingoaren uniformearen inguruko araudietan, ezta Euskara Planean ere. Gogorarazi du, 2005ean diziplinazko espediente bat ireki zitzaiela hainbat udaltzaini uniformearenak ez ziren pegatina batzuk eramateagatik, lan-gatazka baten ingurukoak. Egun aukera hori posible izatea, gobernu taldearen babesarekin, aurreko jarrerekin kontraesanetan dago, eta horrez gain, oportunista da.

Koldo Iturbe jaunak adierazi du PPk diskurtsoa aldatu zuela uste zuela. Udalaren Euskara Planaren 4219 atalean proposamen hori jasota dagoela esan du, eta argitu du udaltzainek beraiek eskatu zutela. PPren argudiatze horretan ez direla kontuan hartzen herritarren hizkuntza-eskubideak eta udaltzainek soinean bereizgarri hori emango balute, kontuan hartuak izango

de la comunidad autónoma, pero marcarlo……. ¡no por favor!.

Por todo ello el Grupo Municipal Popular propone la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO.- Que no se use el uniforme de la policía municipal de Getxo para ningún tipo de anuncio, incluidos los idiomas que el agente conozca.

SEGUNDO.- Que se retiren las pegatinas de los uniformes que se han insertado sobre el conocimiento del euskera.

TERCERO.- Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

Luis Almansa manifiesta que van a apoyar la moción porque la colocación de pegatinas en el uniforme no es una opción que esté contemplada en las normas de uniformidad de la Policía Local ni en el Plan de Euskera. Recuerda que el año 2005 se abrió un expediente disciplinario a una gran parte de agentes de la Policía Local por llevar unas pegatinas ajenas a la uniformidad, que hacían alusión a un conflicto laboral que existía. Cree que la actual posibilidad, que cuenta con el apoyo incluso del equipo de gobierno, es una contradicción con actuaciones anteriores y es oportunista.

Koldo Iturbe manifiesta que estimaba que el discurso del PP había evolucionado. Indica que en el apartado 4219 del Plan de Euskera municipal se recoge esta propuesta y aclara que la petición viene de los agentes y que en toda la argumentación del PP se echa en falta los derechos lingüísticos de los ciudadanos que se

liratekeela. Horrez gain, PPren gobernupeko Vitoria-Gasteizko Udalean, neurri bera dagoela jakinarazi du, eta Vitoria-Gasteizko Udalak saltokiei eta ostalaritzari banatzen dizkien logo eta pin batzuk erakutsi ditu, erosleek euskaraz dakiten langileak identifika ditzaten erabiltzen direnak. Kanpaina hori aurkeztu eta hurrengo egunean, Vitoria-Gasteizko Udaletik deitu zietela adierazi du, informazioa eskatu eta pegatinak emateko. PPri eskatu dio Vitoria-Gasteizko Udalak euskara babesteko dituen irizpideekin bat egiteko. Osakidetzako medikuek ere euskara dakitela adierazten duen bereizgarri bat dutela adierazi du, Patxi Lopezen gobernuan diseinatutakoa eta PPk bere garaian sustengatua.

Bingen Saitua jaunak adierazi du Bilduk mozioaren aurka bozkatuko duela. Getxoko euskararen egoera txarra dela gogorarazi du, eta erakutsitako babes oro preziatzekoa dela. Udaltzain guztiek euskaraz jakitea gustatuko litzaiokeela adierazi du, orduan ez legokeela inongo identifikagarriren beharrik. Gogorarazi du, hainbat lantokitan, "Nahi baduzu euskaraz" dioten kartelak daudela, eta ondo iruditzen zaiola pegatinak erabiltzea. Gainera, gogoan duenez udaltzainek beraiek eskatu zutela, lana euskaraz egin zezaten. PPren mozioa euskararen aurkako erasoen politiken baitan kokatu du.

Luis Almansa jaunak adierazi du eztabaida gaitik besteratzen ari dela, euskararen alde edo kontra dagoen eztabaidatzen ari direla, eta bere ustez, atzean utzi zuten gai bat dela. Udaltzaingoaren uniformeek bereizgarriak eramatearen inguruan dela eztabaida esan du, eta gogoratzeko zer gertatu zen 2005ean, hainbat

verían cumplimentados indicando los conocimientos lingüísticos de los agentes. Manifiesta, también, que en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, gobernado por el PP, existe una medida idéntica y enseña logos y pines que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz reparte a comercios y hostelería para identificar a los empleados que saben euskera e informa como al día siguiente de presentar esta campaña le llamaron del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para pedir información y facilitarles las pegatinas. Pide al PP que se una a los criterios que mantiene el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz de apoyo al euskera. Finaliza indicando que también los médicos de Osakidetza llevan un distintivo de conocimiento lingüístico del euskera que fue diseñado en el gobierno de Patxi López, que estaba sustentado por el PP.

Bingen Saitua indica que Bildu votará en contra de la moción y recuerda que la situación del euskera en Getxo es mala y que todos los apoyos que se le realizan son de estimar. Manifiesta que le gustaría que todos los policía locales supieran euskera y entonces no fuera necesario llevar ningún tipo de identificativos. Recuerda que en muchos puestos de trabajo figuran carteles con "Nahi baduzu Euskara" y le parece bien que se lleven las pegatinas que, recuerda, han solicitado los policías municipales para desarrollar su trabajo en euskera. Ubica la moción del PP en su política de ateques al euskera.

Luis Almansa indica que se está desviando el debate a la cuestión de si se está a favor o no del euskera, lo cual estima que es una cuestión superada. Opina que el debate ha de centrarse en si el uniforme de la Policía Local puede llevar distintivos ajenos a su propia

udaltzain zigortu zituztela uniformearenak ez ziren pegatinak eramateagatik. Bereak ez diren pegatinak ez dituela izan behar uniformeak esanez amaitu du.

Jesus Toca jaunak adierazi dio alkateari interbentzio laburrak egiteko eskatu duela saioaren hasieran, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunaren harira egingo diren elkarretaratzeak direla eta. Udalbatza eta gai-zerrenden puntuak baldintzatzen ari dela adierazi du, eta saioa lehenago hasi zitekeela edota goizez ere egin zitekeela.

Alkate jaunak Toca jaunari isiltzeko eskatu dio, gai-zerrendako eztabaidagaitik urruntzen ari dela, eta gogorarazi dio, saioaren hasieran laburtasuna eskatu duenean hartu behar zuela hitza, inori ez diola inongo irizpiderik jarri, eta ez urruntzeko mozioaren edukitik.

Toca jaunak jarraitu egin du hitz egiten, eta adierazi du Nerekan andreari utzi egin zaiola denboraren laburtasunaren inguruan hitza hartzen, inork ez diola ukatu hitzik. Ondoren, Koldo Iturbe jaunari esan dio gobernu taldeak soilik onartutako Euskara Plana aztertu duela. Gobernu taldeak soilik esan du, ez baitzen gai izan Udalbatzan aurkezteko, bertan eztabaidatu eta onartu zezaten. Iturbe jaunak adierazitako gaia irakurri du, eta esan du ez dela inon ere aipatzen uniformean pegatinak eramateko aukera. Bere ustez, neurri horrek diskriminazioa sortzen du udaltzainen artean, udaltzain batzuk ere hori salatu omen dute, eta euskarari mesede berezirik egingo ez diola iruditzen zaio. Euskarari mesede egingo diona hizkuntza hori ikasi nahi dutenei ikasteko aukera erraztea dela uste du.

uniformidad y recuerda lo que sucedió el año 2005, que se sancionó a muchos policía por llevar pegatinas ajenas a la norma de uniformidad. Finaliza estimando que su criterio es que el uniforme no debe llevar distintivos ajenos al mismo.

Jesús Toca recuerda al Alcalde que ha pedido brevedad en las intervenciones al inicio de la sesión para acudir a la convocatoria de concentraciones con motivo del Día Internacional contra la violencia contra las Mujeres y que esto está condicionando el Pleno y el tratamiento de los puntos del orden del día cuando podía haber adelantado la hora de comienzo o incluso haberlo convocado a la mañana.

El Alcalde manda callar al sr. Toca porque se está apartando del punto del orden del día que se está tratando y le recuerda que al principio de la sesión cuando ha pedido brevedad podía haber intervenido y aclara que no ha impuesto ningún criterio a nadie y le pide que se ciña a la moción.

Continúa el sr. Toca interviniendo y manifiesta que a la sra. Nerekan se le ha permitido referirse en su última intervención a la cuestión relativa a la brevedad del tiempo de la sesión sin quitarle el uso de la palabra. Continúa manifestándole a Koldo Iturbe que ha estudiado el Plan de Euskera, aprobado por el equipo de gobierno en solitario porque no ha sido capaz de presentarlo al Pleno para su debate y aprobación, y da lectura al punto indicado por el sr. Iturbe, manifestando que en el mismo no se cita en ningún momento la posibilidad de llevar pegatinas en el uniforme. Cree que esta medida genera una discriminación en la policía, tal y como han manifestado diferentes miembros del cuerpo y no cree que esa

Horrez gain, beste udaletxeetan egiten denak Getxoko PPren jarrera ez duela baldintzatzen adierazi du, eta azpimarratu du mozioaren helburuak ez duela zerikusirik euskararekin, baizik eta Udaltzaingoaren uniformearekin, autoritatea ezartzen duten langileak baitira.

Mozioa bozkatu eta atzera bota da, emaitza hau izan baitu: 11 bozka alde, PP eta PSE-EErenak; 14 bozka aurka, EAJ eta Bildurenak.

medida favorezca al euskera. Opina que lo que facilita el euskera es facilitar su aprendizaje a aquellos que lo desean. También indica que lo que se realiza en otros ayuntamientos no condiciona la actuación del PP de Getxo y remarca que la finalidad de la moción no tiene nada que ver con el euskera sino con la uniformidad de la Policía, que son empleados que ejercen autoridad.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 11 votos a favor, PP, PSE-EE, 14 votos en contra, PNV, Bildu.

**176.- GETXO-BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: KULTUR AZPIEGITURA BERRIENTZAKO BEHARREZKOAK DIREN LANPOSTUAK PUBLIKOAK ETA KALITATEZKOAK IZAN DAITEZEN.**

Maitane Nerekan andreak ondorengo mozioa irakurri du:

Auzo Elkarte eta auzokide askoren eta gaur egungo Osoko Bilkuraren gehiengoaren borondatearen kontra bada ere, Getxo Antzokia eta Kultur Etxe berrien proiektuak aurrera doaz. gobernu taldeak maneiatzen dituen aurreikuspenak betez gero, 2015ean erabilerarako prest egongo dira.

Horrekin lotuta, gobernu taldeak Getxoko Kultura 2012-2016 Plan Estrategikoa aurkeztu zuen orain hilabete batzuk, aipatu bi azpiegituren diseinua erabat itxita zegoenean; horrek, ustez, Getxoko Kultur Etxea organoak estrategia integral barruan martxan jarri beharreko aldaketak zehazten ditu.

**176.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/CREACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO PÚBLICOS Y DE CALIDAD EN LAS NUEVAS INFRAESTRUCTURAS CULTURALES.**

Maitane Nerekan da lectura a la siguiente moción:

En contra de la voluntad de muchos/as vecinos y vecinas, asociaciones de barrio, y de la mayoría de miembros del Pleno de Getxo, los nuevos proyectos del Getxo Antzokia y Casa de Cultura de Romo siguen en curso. Según las previsiones del equipo de gobierno para el 2015 dichos proyectos estarán listos para su uso.

Relacionado con esto, hace unos meses el equipo de gobierno presentó el Plan Estratégico de Getxo Kultura 2012-2016. Para entonces ya estaban totalmente diseñadas estas dos infraestructuras, se supone que este Plan Estratégico especificará los cambios necesarios para poner en marcha una estrategia integral de los órganos de la Casa de Cultura de

Getxo.

60 miloi eurotik gorako inbertsio publikoa suposatu du gobernu taldeak Getxoko Kultur azpiegiturekin azken urteotan eraman nahi izan duen estrategiak; azken urteotako aurrekontuak erabat baldintzatuta egon dira azpiegitura horiengatik. Horrez gain, herriko plaza nagusiak zein frontoi publiko bakarra erabiltezin izan ditugu urteetan, horrek suposatzen duen sozializazio eta herri aktibazio kaltearekin. Inguruko merkatariek eta ostalariek ere tamainako obra jasatea ekarri duen kaltea ezagutu dute. Kultur herrikoian lan egiten duten eragileentzako hain erabilgarri zen Algortako musika kioskoa ere lapurtu zaio herriari.

Esta estrategia que ha llevado a cabo el equipo de gobierno durante estos últimos años en infraestructuras, ha supuesto una inversión pública de más de 60 millones de euros, los prespuestos municpales de estos últimos años han estado totalmente condicionados por dichas inversiones. Además, durante estos años una de las mayores plazas del municipio y el único frontón público han estado inutilizables, con el daño que esto ha provocado en la socialización y activación ciudadana. Los comercios y hosteleros del entorno, también han tenido que soportar los daños que suponen unas obras de este calibre. Por si fuera poco, le han robado al pueblo el quiosco de música que tanto usaban los agentes que trabajan a favor de la cultura popular.

Logikoa denez, eta Kultur Etxeko Batzordean orain arte ukatu badute ere, kultur azpiegitura berriek zein estrategia aldaketak beharrizan berriak ekarriko ditu. Algortan dagoen Getxo Antzokiak zein Itzubaltzeta-Romoko Kultur Etxeak azpiegituraren kudeaketarako langileak beharko dituzte: atezainak, soinu eta irudi teknikariak, garbitzaileak… Planteatzen duten ustezko estrategia berriak ere, beharrizan berriak eskatuko ditu.

Lógicamente, y aunque hasta ahora lo han negado en el Consejo de la Casa de Cultura, las nuevas infraestructuras y estrategias culturales van a traer nuevas necesidades. El Getxo Antzokia de Algorta y la Casa de Cultura de Itzubaltzeta-Romo van a requerir de nuevos empleados para su gestión: porteros, técnicos de imagen y sonido, personal para la limpieza… Esa supuesta nueva estrategia cultural que plantean también traerá nuevas necesidades.

Herriaren diruaz egin den inbertsio erraldoiak ez du diru publikoa enpresa pribatuetara bideratzeko aitzakia berria izan behar. Ez dugu kultur azpiegitura berriek sortzen dituzten lanpostuak azpikontratatu nahi, horrek lan baldintzetan eta enpleguaren kalitatean sortzen duen prekarizazioagatik eta, azken hilabeteotan behin eta berriz

Estas dos enormes inversiones realizadas con el dinero de la ciudadanía, no debe ser un pretexto para dirigir el dinero público a empresas privadas. No queremos subcontratar los puestos de trabajo que se vayan a crear con las nuevas infraestructuras culturales, pues esto supone la precarización del empleo y

ikusi dugunez, zerbitzu publikoak azpikontratatzeak zerbitzu horiek enpresa lehien menpe uztea suposatzen duelako, zerbitzuaren erabateko kontrola galduz eta kalitatea kaltetuz.

de las condiciones laborales; tal y como hemos podido ver estos últimos meses, la subcontratación de los servicios públicos supone dejar éstos a la disputa entre empresas privadas, perdiendo totalmente su control y dañando la calidad de los mismos.

Horregatik ondoko PROPOSAMENA eramaten dugu Osoko Bilkurara onartua izan dadin:

Por todo ello, traemos a este Pleno de Getxo para su aprobación la siguiente PROPUESTA:

1.- Osoko Bilkura honek konpromisoa hartzen du, kultur azpiegitura berriek (Getxo Antzokia eta Kultur Etxea) zein kultur estrategia aldaketak eskatzen dituen lanpostu berri guztiak publikoak eta kalitatezkoak izan daitezen.

1.- El Pleno de este Ayuntamiento se compromete a que sean públicos y de calidad todos los puestos de trabajo nuevos que se creen a raíz de las nuevas infraestructuras culturales (Getxo Antzokia y Casa de Cultura de Romo) y a raíz del cambio de estrategia en cultura.

2.- Horretarako Gobernu Taldeak, Kultur Etxeko langileekin, beharrezkoak izango diren lanpostuen zerrenda egingo du ahalik eta lasterren, beharrizanak zeintzuk izango diren identifikatzeko.

2.- El Equipo de Gobierno, junto a los trabajadores de la Casa de Cultura de Getxo, realizará lo antes posible una lista de los puestos de trabajo que vayan a ser necesarios para identificar las necesidades futuras.

3.- Lanpostu horiek betetzeko, beharrezkoak diren Lan Deialdi Publikoak zein Lan Poltsen berriztapen eta irekitzea egingo da, beti ere, sindikatuekin eta langileen ordezkaritzarekin adostu eta prozesu horietan erabateko gardentasuna bermatuz.

3.- Para cubrir esos puestos de trabajo se realizarán las necesarias convocatorias públicas de empleo y se abrirán y renovarán las bolsas de empleo, todo ello acordándolo con los sindicatos y representantes de los trabajadores mediante un proceso totalmente transparente.

Jesus Toca jaunak adierazi du gobernu taldeak Getxo Antzokiaren eta Romoko Kultur Etxearen bideragarritasun plan bat izatea espero duela, eta plan horren baitan langileen kontratazioen beharrak azalduta egongo direla, bestela, jarduera arduragabeen aurrean geundekeela. PPk plan hori sarritan eskatu duela gogorarazi du, eta gobernu taldeak ez diola erantzunik

Jesús Toca manifiesa que espera que el equipo de gobierno tenga un plan de viabilidad del Getxo Antzokia y de la Kultur Etxea de Romo y en el mismo estén reflejadas las necesidades de contratación de personal, ya que si esto no existe estaríamos ante unas actuaciones inconscientes. Recuerda que el PP ha pedido muchas veces que se le facilite dicho plan sin haber

eman. Ondorioz, plana egon arren, emateko asmorik ez dagoela suposatzen duela azaldu du. Bilduri hipokrita ez izateko eskatu dio, azpikontratazioa salatu duela, eta aldi berean, herriko zerbitzu garrantzitsuenean egon daitekeen azpikontrataziorik handiena ahalbidetu duela.

obtenido ninguna respuesta por parte del equipo de gobierno, por lo que supone que pese a existir no hay voluntad de entregarlo. A Bildu le pide que no sea hipócrita planteando la denuncia de subcontratación cuando ha posibilitado la mayor subcontratación en el servicio más importante del municipio.

Koldo Iturbe jaunak hitza hartu du eta Kultur-Etxeko langileen gaitasuna eta balioa azpimarratu du, hark egin baititu Getxo Antzokiak eta Romoko Kultur Etxeak erantzuten dituzten planteamenduak. Bilduri adierazi dio Kultur-Etxearen iraileko Zuzendaritza Batzordeak ekipamendu horiek irekitzeak ez duela gastuen aurrekontuko I. kapitulua areagotuko, izatekotan ere, II.a areagotuko dutela. Horrez gain, Bilduren jarrera beste herrietan, Getxon agertzen dutenaren erabat aurkakoa dela adierazi du. Adibidez, Donostian eta Andoainen, bi kultura-teknikari daudela, eta gainontzekoa azpikontratatuta dagoela, baita musika eskola bera ere.

Koldo Iturbe inicia su intervención poniendo en valor el trabajo y la capacidad del personal del Aula de Cultura que ha sido el que ha realizado los planteamientos a los cuales responde el Getxo Antzokia y la Kultur Etxea de Romo. A Bildu le indica que la Junta Rectora del Aula de Cultura de septiembre indicó que la apertura de estos equipamientos no van a incrementar el capítulo I sino, en todo caso, incrementarán el capítulo II del presupuesto de gastos. Manifiesta, también, que la actuación de Bildu en otros municpios es totalmente contraria a la que plantean en este, señalando ejemplos de Donosti, Andoain, etc, y más concretamente el de Sopela, donde existen dos técnicos de cultura y todo lo demás está subcontratado, incluso la música eskola en su integridad.

Maitane Nerekan andreak PPri erantzun dio beraiek bezala bideragarritasun plan bat egotea espero dutela, baina eskuartean ez duten bitartean, konpromiso zehatzak eskatzen dituztela plana Osoko Bilkuran onartzeko. EAJri adierazi dio ez duela ulertzen zergatik hasi diren hitz egiten Kultur Etxeko langileen balioagatik, Bildukoek lan hori gutxietsiko balute bezala. Adierazi du, iraileko Zuzendaritza Batzordean azaldutakoaren berrespenak are gehiago argitzen duela gobernu taldeak ekipamendu horietako zerbitzu guztiak azpikontratatuko dituela; eta, Sopelaren inguruan adierazitakoari buruz, aitortu dute kritikagarria dela, baina zein

Maitane Nerekan replica al PP que espera como ellos que exista un plan de viabilidad, pero que en tanto no se conozca plantean compromisos concretos para su aprobación por el Pleno. Al PNV le indica que no entiende porque su intervención se inicia con la puesta en valor del personal del Aula de Cultura y, con ello, pretender dar a entender que ellos desprecian dicha labor. Manifiesta que la ratificación de lo informado en la Junta Rectora del pasado mes de septiembre clarifica aún más que el equipo de gobierno va a subcontratar

lanposturengatik ari den aztertu beharko litzatekeela. Amaitu du esanez beste udaletan egiten denak ez duela justifikatzen kultura-ekipamendu berriek sortutako lanpostuak azpikontratatzearen irizpidea.

Mozioa bozkatu eta atzera bota da, emaitza hau izan baitu: 6 bozka alde, Bildu eta PSE-EErenak; eta 19 bozka aurka, EAJ eta PPrenak.

todos los servicios a instalar en dichos equipamientos, y respecto a lo manifestado en relación a Sopela, opinan que si es cierto es criticable pero también habría que analizar a que puestos de trabajo se refiere. Finaliza manifestando que lo que en otros ayuntamientos se realice no justifica el criterio del equipo de gobierno de subcontratar todos los puestos que se generen con la puesta en marcha de los nuevos equipamientos culturales.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 6 votos a favor, Bildu, PSE-EE; 19 votos contra, PNV, PP.

**177.- PSE-EE ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ERREGISTRO ZIBILA KUDEATZEA.**

Luis Almansa jaunak mozioa irakurri du.

Iñaki Gamero jaunak hitza hartu du, Udalaren eskumenetik kanpo dagoen mozio bat dela adierazteko, eta faltsuak diren baieztapenak biltzen dituela esateko. Erregistro Zibila arautzen duen legeak zerbitzuaren eraginkortasuna eta doakotasuna bermatzen duela gogorarazi du. 2011n, gobernu sozialistaren agindupean, Erregistro Zibila aldatzea onartu zela adierazi du, baina hiru urtera jarri zela indarrean. Botere Judizialaren memoriaren arabera, justiziaren funtzionamenduaren inguruan herritarrek egindako kexetatik % 50 Erregistro Zibilaren funtzionamenduaren ingurukoak

**177.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA S/LA GESTIÓN DEL REGISTRO CIVIL.**

Luis Almansa da lectura a la moción.

Interviene Iñaki Gamero para indicar que se trata de una moción que se sale del ámbito competencial del ayuntamiento y que recoge afirmaciones no ciertas. Recuerda que la ley que regula el Registro Civil garantiza la eficacia del servicio y su carácter gratuito. Indica que el año 2011, con el gobierno socialista, se aprobó la modificación del Registro Civil pero se aplazó su entrada en vigor por un período de tres años. Recuerda que las quejas ciudadanas sobre el funcionamiento de la justicia, según la memoria del Poder Judicial, se localizaron en cerca de un 50% en el

zirela gogorarazi du, eta horregatik zela beharrezkoa neurriak hartzea. Adierazi du bake-epaitegiak ez direla kenduko, zergak ere ez direla kobratuko, eta segurtasunari edo datu-babesari ere ez diola eragingo. Gaineratu du, kritikatzen duten lege horrek bermatzen duela Erregistro Zibilaren doakotasuna modu mugatuan.

Koldo Iturbe jaunak hitza hartu du, EAJ beste erakundeetan adierazten ari denari jarraiki, mozioaren alde bozkatuko dutela adierazteko.

Mozioa bozkatu egin da, eta emaitza hau izan du: 16 aldeko bozka, EAJ, Bildu eta PSE-EErenak; 9 aurkako bozka, PPrenak.

Ondorioz, gehiengoak onartutako mozioa:

Pertsonei euren bizitzan zehar eragiten dieten gertaera garrantzitsuak erregistratzen dira Erregistro Zibilean. Horrela, haien jaiotza, ezkontza, seme-alabak eta heriotza jasotzen dira. Horrez gain, guztion bizitzaren gorabeherak ere izapidetzen dira, horiek hasierako inskripzioa aldarazten dutenean: aitatasuna/amatasuna aitortzea; adopzioak; ezintasuna aitortzea; tutelak; izena, abizena edo sexua aldatzea; nazionalitatea lortzea; edo bizi-agiria, gure adinekoentzako behar-beharrezkoa dena pentsio publikoak edo aseguruak edota gehigarri pribatuak edo enpresakoak kobratzen jarraitzeko. Horregatik, funtzionario publikoek eraman dute betidanik, eta duela hainbat urtetatik, Justizia Ministeriokoek artatzen dute

funcionamiento de los registros civiles y por eso era necesario actuar. Manifiesta que no se suprimen los juzgados de paz, ni se van a cobrar tasas, ni se falta a la seguridad o protección de los datos y que la ley que critican asegura de manera taxativa la gratuidad del registro civil.

Koldo Iturbe interviene para manifestar que, en coherencia con lo que el PNV está manifestando en otras instituciones, votarán a favor de la moción.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 16 votos a favor, PNV, Bildu, PSE-EE, 9 votos en contra, PP.

En consecuencia, por mayoría es aprobada la siguiente moción:

En el Registro Civil se inscriben los hechos esenciales que afectan a las personas a lo largo de su vida. Así, se anota su nacimiento, su matrimonio, los hijos que tiene, y su defunción. También se tramitan expedientes que responden a vicisitudes en la vida de todas y todos, que provocan modificación de la inscripción inicial: un reconocimiento de paternidad/maternidad, una adopción, un reconocimiento de incapacidad, tutelas, un cambio de nombre, de apellido o de sexo, o incluso la adquisición de una nacionalidad, o la expedición de la fé de vida tan necesaria para nuestros mayores a la hora de poder seguir cobrando pensiones públicas o seguros o complementos privados o de empresa.

(edo dagokion autonomia-erkidegoko Sailburutzakoek). Haiek bermatzen dute erregistratutako datuen pribatutasuna mantentzen dela eta legez interesdun direnek datu horiek askatasunez eta doan lortzen dituztela.

Por esa razón ha sido atendido desde siempre por funcionarios públicos, y desde hace años pertenecientes al Ministerio de Justicia (o la Consejería de la comunidad autónoma respectiva), que garantizan la privacidad de los datos registrados, así como el acceso libre y gratuito a los legítimos interesados.

Bake Epaitegiek herritarrengana gerturatzen dute Justizia-administrazioa, herritarrei aukera ematen baitiete haiekin lotutako edozein prozeduren informazio orokorra jasotzeko, eta, horrez gain, Erregistro Zibil gisa jarduten dira. Horrela, ekiditen da herritarrek probintzia-hiriburuetara joan behar izatea egunerokoaren izapideak egiteko, udalerri guztiek dutelako Bake Epaitegi bat.

Los Juzgados de Paz acercan la administración de Justicia al ciudadano, en cuanto que permiten recibir información general de cualquier procedimiento en el que se sea parte, y actúan, además, como Registro Civil; evitando, de esta manera, desplazamientos de la ciudadanía a las capitales de provincia para realizar trámites de la vida cotidiana, al existir un Juzgado de Paz en cada municipio.

Gainera, azken urteotan, Administrazio Publikoak inbertsio handia egin du Erregistro Zibilaren funtzionamendua modernizatzeko, zerbitzu horren berezko agiriak informatizatuz eta digitalizatuz eta bertan maneiatzen diren datuak era seguruan eta kontrolatuan atzitzeko aukera ematen duen programa bat sortuz. Zehazki, diru publikotik 128 milioi euro inbertitu dira teknologia berrietan.

En los últimos años, además, se ha realizado una gran inversión por parte de la Administración Pública para modernizar el funcionamiento del Registro Civil informatizando y digitalizando documentos propios de este servicio y creando un programa que permita el acceso seguro y controlado de los datos que se manejan en el mismo. En concreto se han invertido más de 128 millones de euros de dinero público en nuevas tecnologías.

Alderdi Popularrak Erregistro Zibila interes pribatuen esku utzi nahi du, merkataritza-erregistratzaileei emanez, eta Bake Epaitegiak eta egungo alderdi judizialak kolokan jartzen ditu. Horrela adierazi dute Botere Judizialaren Lege Organikoa eta Planta eta Muga Judizialen Legea aldatzeko proiektuetan eta 2014ko uztailaren 4ko 8/2014 Errege Lege Dekretuan.

El Gobierno del Partido Popular pretende dejar en manos de intereses privados el Registro Civil, mediante la entrega de la gestión del mismo a los registradores mercantiles, y pone en cuestión el mantenimiento de los Juzgados de Paz y de los actuales partidos judiciales. Así se recoge en los proyectos de modificación de la Ley Orgánica del Poder Judicial y la Ley de

Planta y Demarcación Judicial, y en el Real Decreto Ley 8/2014 de 4 de julio de 2015.

Aurtengo otsailaren 20an, Eusko Jaurlaritzak gehiengo bidez (Eusko Alderdi Jeltzaleak, Euskal Herria Bilduk eta Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerrak alde eginda) adostu zuen legez besteko proposamena onartzea, Erregistro Zibila egun dagoen moduan mantentzeko, herritarrei doako zerbitzu publikoa eskaintzen jarraitzeko helburuz.

El 20 de Febrero de éste año, el Parlamento Vasco por mayoría, con el apoyo del Partido Nacionalista Vasco, de Euskal Herria Bildu, y del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra, adoptó el acuerdo de aprobar la proposición no de ley, relativa al mantenimiento del Registro Civil como en la actualidad, para continuar prestando un servicio gratuito y público a la ciudadanía.

Zehazki, pribatizazioak esan nahiko du:

1. Erregistro zibilaren arloan prestatuta, gaituta eta espezializatuta dauden langile publikoen 3.500 lanpostu galtzea.

En concreto, esta privatización supondrá:

1. La pérdida de 3.500 puestos de trabajo de empleados públicos que han sido formados, capacitados y especializados en materia de registro civil.

2. Bake Epaitegien zereginen parte handi bat ezabatzea, horiek kendu aurreko neurria izango dena. Izan ere, Botere Judizialaren Lege Organikoaren eta Planta eta Muga Judizialen Legearen aldaketak aukera ematen du ez soilik Bake Epaitegiak kentzeko, baita alderdi judizial gehienak ere, eta, horrela, probintzia-hiriburuek baino ez lituzkete epaitegiak edukiko. Horrez gain, Erregistro Zibila merkataritza-erregistratzaileen esku geratuko zen, edukirik gabe utzita, baita Bake Epaitegien funtzioak ere, eta horiek ezabatzeko atea irekitzen du.

2. La eliminación de gran parte del cometido de los Juzgados de Paz como medida previa a la supresión de los mismos. De hecho, las reformas de la Ley de Planta y Demarcación Judicial y la Ley Orgánica del Poder Judicial deja la puerta abierta a la supresión no sólo de los Juzgados de Paz sino de también de la mayoría de los partidos judiciales, de manera que solo existan juzgados en las capitales de provincia. Esto unido a la entrega de la encomienda del Registro Civil a los registradores mercantiles, vacío de contenido, aún más, las funciones de los juagados de Paz, y deja abierta la puerta a la supresión de los mismos.

3. Tasak ezartzea zerbitzuak emateagatik. Nahiz eta egia den 8/2014 Errege Lege Dekretuak ezartzen duela zerbitzua doakoa izango dela, merkataritza-erregistratzaileek, funtzionarioak diren arren postua lortzeko moduari eta funtzioa

3. Establecimiento de tasas por la prestación de los servicios. Si bien, es cierto, que el Real Decreto Ley 8/2014 determina que el servicio será gratuito, los Registradores mercantiles, a pesar de ser funcionarios públicos en la forma de acceso al puesto, y en la función que

monopolioan gauzatzeari dagokienean, zerbitzuak muga-zergen bidez kobratzen dituzte, eta etorkizunean, tasa horiek hedatu egingo dira Erregistro Zibilaren izapideetara ere, herritar guztientzat nahitaezkoak direnak (jaiotza bat erregistratzea, familia-liburua, heriotza, ziurtagiriak igortzea, bizi-agiria eta egoera-agiria…). Orobat, lege berriak, erregistratzaileen eskumenak indartu, eta esponentzialki areagotzen ditu herritarrek ordainduta erregistratu behar dituzten kasuak (ahalordeak, etxebizitza erregistratzea, pentsio-planak, testamentuak…). Ondorioz, Erregistro Zibila merkataritza-jarduera bihurtuko da eta burututako egintza guztiak ordaindu beharko dira, horrekin gutxiengo pribilegiatu baten poltsikoa aberastuko delarik.

4. Segurtasun-falta datuak babestean. Merkataritza Erregistroko langileak ez dira funtzionario publikoak, eta, beraz, langile publikoei eskatzen zaizkien konfidentzialtasunari eta sekretuari men egin behar ez dieten pertsona batzuek datu pertsonalak atzitu ahal izango dituzte.

5. Azken urteotan Erregistro Zibila modernizatzeko egin den inbertsioa esku pribatuetara igaroko da, kudeaketa lagatzean horri atxikitako baliabide material guztiak lagatzen direlako. Baliabide horiek lagatzean, diru publikoa xahutzen da, inbertsioak eginda daudelako jada, baliabide materialak ordainduta daudelako, azpiegiturak gure gain hartu ditugulako eta giza baliabideak kontratatu, prestatu eta gaitu ditugulako. Hau da, diru publikotik 128 milioi euro baino gehiago opariituko zaizkie Jabetzaren erregistratzaileei, haien probetxurako.

6. Pertsonen, familien eta herrien historia atzitzeko mugak. Izan ere,

desarrollan en régimen de monopolio, cobran por sus servicios mediante arancel, y el futuro éstos se extenderán también a los trámites de Registro Civil, que son obligatorios para cualquier ciudadano (inscribir un nacimiento, libro de familia, defunción, expedición de certificados, fé de vida y estado,…) Además, la nueva ley potencia las facultades de los Registradores y amplía exponencialmente el número de supuestos que deben ser inscritos previo pago por parte de los ciudadanos ( cualquier poder, inscripción del domicilio, planes de pensiones, testamentos…) Con ello, el Registro Civil va a pasar a ser una actividad mercantil sometida a precio por cada acto que se realice, precio que va a pasar a engrosar los bolsillos de una minoría privilegiada.

4. Falta de seguridad en la protección de datos. Los empleados del Registro Mercantil no son funcionarios públicos, por lo que van a tener acceso a datos de carácter personal, personas no sometidas a las exigencias de confidencialidad y secreto que tienen los empleados públicos.

5. La inversión realizada en los últimos años en la modernización del Registro Civil va a pasar a manos privadas, ya que la cesión de la gestión supone la cesión de todos los medios materiales adscritos al mismo. Esta cesión de medios supone un despilfarro de dinero público dado que las inversiones ya están hechas, los medios materiales cubiertos, las infraestructuras asumidas y los medios humanos contratados, formados y capacitados. Es decir, se van a regalar más de 128 millones de euros de dinero público a los Registradores de la Propiedad para su beneficio.

6. Restricciones en el acceso a nuestra historia personal, de nuestra

horiek Erregistro Zibilak gordetzen ditu, eta bertan aurki dezakegu gure arbasoen eta haien jatorrien eta bizimoduaren gaineko informazioa.

familia, y como pueblo, que guarda el Registro Civil, donde podemos encontrar información de nuestros antepasados, sus orígenes, y forma de vida.

Azaldutako guztia dela eta, Udal Alderdi Sozialistak Udalbatzara aurkeztu du ondoko

Por todo lo expuesto, el Grupo Municipal Socialista presenta al Ayuntamiento Pleno la siguiente propuesta de

AKORDIOA

1. Kontra egitea Erregistro Zibila merkataritza-erregistratzaileei ematen dien uztailaren 4ko 8/2014 Errege Lege Dekretuari.
2. Adieraztea beharrezkoa dela Erregistro Zibila egungo Erregistro Zibileko Bulegoek eta Bake Epaitegiek kudeatzen jarrai dezatela eta herritarrei doako zerbitzu publikoa eman diezaietela, orain eta betiko.
3. Eusko Jaurlaritzari eskatzea, Eusko Legebiltzarrak aurtengo otsailean onartutako mozioarekin bat eginez, kudeaketarako eta betearazpenerako eskumenak eskualdatzeko negoziazioak azkar ditzala, kontuan izanik aipatutako ELD 2015eko uztailaren 15ean sartuko dela indarrean.

ACUERDO

1. Se posicione en contra del Real Decreto Ley 8/2014 de 4 de julio, que entrega la gestión del Registro Civil a los registradores mercantiles.
2. Manifieste la necesidad de que el Registro Civil se mantenga gestionado por las Oficinas de Registro Civil actuales y por los Juzgados de Paz, y prestando un servicio público y gratuito a la ciudadanía ahora y para siempre.
3. Que reclame al Gobierno Vasco que, en consonancia con la moción aprobada en febrero de este año en el Parlamento Vasco, acelere las negociaciones para el traspaso de las competencias de gestión y ejecución, habida cuenta que el R.D.L. mencionado entrará en vigor el 15 de Julio de 2015.

**GALDE-ESKEAK**

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du arratsaldeko seiak eta berrogeita bost minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las dieciocho horas y cuarenta y cinco minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.